ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2021IPLE0002**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2021-03-09ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2021eko martxoaren 9an, arratsaldeko 20:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Mikel Galarza Arrue
- Unai Dorronsoro Olarra

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA
4. ALBIZTURKO “Z.J.E.1.2. UGARTEMENDIA” ZUZKIDURA JARDUERA-EREMUKO HIRIGINTZA HITZARMENAREN HASIERAKO ONARPENA
5. ALBIZTURKO ELIZA INGURUNEA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN ONARPENA
6. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2021-KALD-0000001-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA
7. MARTXOAK 8KO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA
8. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2021-02-09ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2021eko 1 eta 14 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA

Landa bideen dirulaguntza 2021eko otsailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta martxoaren 23 arteko epea dago eskaerak egiteko.

Gehienez 35.000 €ko dirulaguntza ematen du Gipuzkoako Aldundiak eta nekazal esplotazioetara doazen bideek puntu gehiago lortzen dituztenez, aukera gehiago dute dirulaguntza lortzeko.

Momentu hontan Albizturren Urkizuko errepidea da hobekuntza baten beharra duena, eta aurrekontua eskatuko da.

Errepidea luzea denez gerta daiteke aurrekontua 35.000 €tik pasatzea, eta aurrekontuaren arabera erabakiko da errepide guztia edo zati batzuk konponduko diren.

4. ALBIZTURKO "Z.J.E.1.2. UGARTEMENDIA" ZUZKIDURA JARDUERA-EREMUKO HIRIGINTZA HITZARMENAREN HASIERAKO ONARPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 19ko Erabakiaren bidez behin betiko onartutako (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2018ko maiatzaren 18an, 95 zenb.) Albizturko Plangintza orokorrak (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra), "Z.J.E.1.2. UGARTEMENDIA" Zuzkidura Jarduera berria aurreikusten du.

Ainara Ugartemendia Ibarbia eta Iban Ugartemendia Aguirre eremu horretako "Z.J.E.1.2. UGARTEMENDIA" lurzoru pribatuaren jabe dira eta bertan etxebizitza eraikitzeko baimena eskatu diote Albizturko Udalari.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.2 artikuluak jabe eta administrazioaren arteko hirigintza hitzarmena aurrikusten du kasu hautetarako.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Albizturko "Z.J.E.1.2. Ugartemendia" Zuzkidura Jarduera-Eremuko Hirigintza Hitzarmenari eta Iñaki Orbegozo Arrospide, Albizturko Alkateari, hau sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Hitzarmena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta jendaurrean jartzea 20 eguneko epean.

5. ALBIZTURKO ELIZA INGURUNEA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN ONARPENA

Duela 2 urte Ura Ur Agentziaren errekerimendua jaso zuen Albizturko Udalak, Albizturko herrian ur garbiak eta zikinak nahastu egiten zirela, eta bereizteko neurriak hartzeko exigituz.

Ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin bildu ginen, eta irtenbide egokiena Albizturko ur zikinak Tolosakoekin lotzea izango zela adostu genuen. Albizturtik Tolosara doan hodi nagusiko inbertsioa beraiek egingo dute, baina Albizturko Udalari dagokio hodi nagusira iristen diren adar desberdinak egokitzea.

Albizturko "Z.J.E.1.2. Ugartemendia" eremuan etxebizitza berria eraikiko denez, eta bertako lurrak mugituko direnez, momentu egokia da ingurune hortako hodiak bereizi eta eliza inguruneko urbanizazioa hobetzeko.

Xabier Rezabal, Albizturko udaleko arkitekto aholkulariak, 148.423,34 €-ko aurrekontua aurkeztu du inbertsio honetarako, eta diru kopuru handia denez Albizturko Udalarentzat, 2021. urteko Leader dirulaguntza eskatzea ezinbestekotzat jotzen da.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko eliza ingurunea hobetzeko urbanizazio proiektua onartzea.

Bigarrena.- 2021. urteko Leader dirulaguntza eskatzea.

6. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2021-KALD-0000001-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Idazkari Kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	100.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		**100.000,00**

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	100.000,00
GUZTIRA		**100.000,00**

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

7. MARTXOAK 8KO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA

Osoko bilkurak aho batez Martxoak 8ko adierazpenari atxikitzea onartu du:

ZAINTZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaurgarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura…) bai etxeen barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen

artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakarzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurriz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizarteak bere aitorpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanez gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.

- **Analisia** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrienen egoerari eta beharrizanei buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea.**

- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbatean.

- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza

baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.

- **Udalen Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten **erantzunkidetasuna**.

- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.

- Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesa ematea.

8. GALDERA ERREGUAK

- Albizturko Ostatua: 2021. urteko abenduaren 5ean bukatzen da Albizturko Udalaren eta Yuqueri Pedreira-ren arteko Albizturko Ostatuaren ustiapen kontratua, eta Yuqueri Pedreira-k azaldu du ez duela jarraitzeko asmorik eta prest dagoela malgutasunez jokatzeko aldaketa egiterakoan.

Albizturko Ostatuak eskolako haurrei ere jaten ematen dienez, komeni da kurtso berrirako aldaketa eginda egotea, eta horretarako prozedurarekin hastea adostu dugu.

Osoko bilkura, 20:50tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2021eko martxoaren 10ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 11:55:43 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:05:36 +02'00'